# BABESLEEN DOSSIERRA



lauaxeta.eus



“Hezkuntza da mundua aldatzeko erabili dezakezun arma boteretsuena

NELSON MANDELA

“Pertsona garatuz gizartea eraikitzen

# AURKIBIDEA


Lauaxeta Ikastola 1

Zeintzuk dira gure balioak 2

Nortzuengana iristen gara? 3

Zergatik alkartu? 4

Nola langundu dezakezu? 5



“ Pertsona garatuz gizartea eraikitzen

# Lauaxeta Ikastola

**Lauaxeta Ikastola Koop S. familien kooperatiba bat da, eta 1977tik ari da lanean ikasleak gaztetatik ahalik eta girorik onenean gara daitezen.** Hasiera-hasieratik familien kooperatiba gisa sortu ginen, gizarteari ekarpenak egiteko modurik onena dela uste baitugu. Hori dela eta, **gure goiburua "Pertsona garatuz gizartea eraikitzen" da.**

**Ikastolak Bizkaia osotik etorritako 1.400 ikasle eta 1.000 familia inguru ditu eta, beraz, eragina du lurralde osoan.**

**Ikastola garen aldetik, euskal kulturari eta gizarteari ekarpen positiboa egiten saiatzen gara gure balioekin,** bai ikasleen artean, bai harremanak ditugun erakunde guztien artean.

**Hasieratik eman diogu garrantzia berrikuntzari, bai hezkuntzan alorrean eta baita kudeaketaren alorrean ere.** Horretarako, egungo Zuzendaritza Taldea EFQM ereduaren bikaintasunaren kudeaketan trebatu zen. Prozesukako kudeaketa-sistema bat diseinatu genuen, eta egindako lanaren ondorioz hainbat sari lortu genituen: 2001eko zilarrezko Q saria, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren Kalitatearen Saria, bi aldiz lortua (2001 eta 2002); 2003ko urrezko Q saria; 2004ko eta 2006ko Europako Sarietan finalista; eta 2007an Prize Winner for Management by Processes & Facts eta EFQM Excellence Award Winner sariak.

**2010. urtetik Lauaxeta Ikastola Koop. S. Euskadiko UNESCO sarearen parte da. Zentzu honetan, Lauaxetaren ekintzak eta programak UNESCOren bost esparruetan kokatzen dira:** hezkuntza, natur eta giza zientziak, kultura eta informazioa eta komunikazioa, 2030 Agendarekin eta Nazio Batuen Garapen Iraunkorreko Helburuekin dugun konpromisoa erakutsiz.

**Halaber, El Mundo egunkariaren eta Forbes nazioarteko elkarte ospetsuaren arabera, urtero nabarmentzen gaitue estatu mailako ikastetxe onenen artean**, ikasleen gaitasun anitzeko garapenean eta proiektuetan oinarritutako ikaskuntza nabarmenduz

**+ info: lauaxeta.eus**

# Zeintzuk dira gure balioak?

**Ingurunean eragin sozial handiagoa lortzeko balio partekatuak eta ahaleginak batu** eta Lauaxeta Ikastolarekin lotu nahi duten erakundeak bilatzen ditugu.

Lankidetza horiek aldez aurretik aztertu beharko dira, gure balioak benetan bat datozela ziurtatzeko.

## Balio partekatuak

- Etengabeko hobekuntza
- Talde-lana
- Erantzunkidetasuna
- Etengabeko prestakuntza
- Errespetu- eta konfiantza-giroa





# Nortzuengana iristen gara?

## Gure publikoa: ikasleak baino askoz gehiago

Gure ikasle gehienen bizitzaren 16 urte partekatzen dugu. Haiekin batera, haien familiekin ere bide bera. Ikasle ohiekiko harremana eta lotura mantentzea gustatzen zaigu. Eta ibilbide horretan guztian, aliantzak eta lankidetzak ditugu hainbat arlotako erakundeekin.

### Zenbait zenbaki

**1.420**
ikasle

**1.013**
familia

**120**
langile

**+100**
aliantza

**+2.000**
harpidedun blogean

**+7.000**
jarraitzaile sare sozialetan

**+100**
hezitzaile era irakasleren bisita

**+400**
ikasle ohiekin topaketak

**Adin eta jatorri ezberdinetako publikoa** biltzen duten jarduera, proiektu eta ekitaldien programa zabala garatzen dugu.

## Ikasleak

Egunero, Bizkaiko hainbat eskualdetako 2-18 urte bitarteko ia 1.500 ikasle jasotzen ditugu.




| Zonaldea / Zona | | Herria / Municipio | |
|---|---|---|---|
| Bilbo handia | 1 | Arrigorriaga | Arrankudiaga |
| | | Barakaldo | Portugalete |
| | | Basauri | S-M. de Basauri |
| | | Bilbo | Santurtzi |
| | | Etxebarri | Ugao |
| | | Galdakao | Zaratamo |
| | | Usansolo | |
| Durangaldea | 2 | Durango | Eibar |
| | | Ermua | Elorrio |
| | | Iurreta | Garai |
| | | Abadiño | Mallabia |
| | | Atxondo | Markina |
| | | Berriz | Munitibar |
| | | Deba | Otxandio |
| | | Zaldibar | Amorebieta |
| Arratia | 3 | Zeberio | Areatza |
| | | Artea | Bedia |
| | | Lemoa | Dima |
| | | Arantzazu | Zeanuri |
| | | Igorre | |
| Txorierri | 4 | Lezama | Larrabetzu |
| | | Mungia | Loiu |
| | | Zamudio | Mungia |
| Gernikaldea | 5 | Gernika | Bermeo-Mundaka |
| | | Muxika | Sukarrieta |

## Familiak

Gure ikasleen gurasoak ikastolako egunerokoan ez ezik, eurentzat egiten ditugun ekitaldi eta jardueretan ere inplikatuta daude. Bizkaia osoko 1.000 familia baino gehiagotara iristen gara.

## Ikasle ohiak

Gure ikasle ohiekin dugun loturari eusten diogu. Izan ere, batzuek seme-alabekin itzultzen dira; beste batzuk,, langile gisa eta beste batzuekin harremana mantentzen dugu, beraientzat egindako ekitaldiei edo eskaintzen dizkiegun zerbitzuei esker: kirol-guneetako alokairua, lan-poltsa, prestakuntza, hitzaldiak, eta abar.

## Aliantzak

Bere hezkuntza proiektua garatzeko, Lauaxeta Ikastolak hainbat erakunde, enpresa eta pertsonarekin kolaboratzen du. Erakunde horiek guztiek, Lauaxeta Ikastolaren hezkuntza-proiektua garatzen laguntzeaz gain, ikasleen ikaskuntza-prozesua aberasteko iturri garrantzitsuak dira.

## Gizarteari irekiak

Gizarteari irekitako ikastola bat gara. Gure aliantzetatik haratago, sare sozialetako jarraitzaileek hori egiaztatzen dute.

## Argitalpenak

### Urtekaria

Ikasturte bakoitzean argitaratzen dugun urtekaria da, 1.400 ikasle baino gehiagoren artean banatzen dena. Ikasturtean zehar familien egunerokoan kontsultatzen dena.

### Memoria

Urtero memoria bat egiten dugu, gure asmoen eta helburuen ebidentziak biltzeko ahalegina eginez. Dokumentu honetan, egindako jarduerei eta proiektuei eta urtean lortutako emaitzei dagokienez esanguratsuena laburbiltzen da.

### Argitalpen zehatzak

Adin-tarte espezifikoagoen arabera hainbat dokumentu kaleratzen ditugu, eta ihauen bitartez talde jakin batzuetara iritsi zaitezke: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza edo Batxilergoa.









### Blog/ Newsletter eta sare sozialak (*)

**27,26K**
orrialde ikusita (*)

**9.673**
bisitari (*)

**2.400**
harpidedun

**2.405**
jarraitzaile

**3.024**
jarraitzaile

**661**
jarraitzaile

**599**
jarraitzaile

**992**
jarraitzaile

(*) 2023ko urtarrileko datuak.



# Zergatik elkartu?

**Elkarrekin urrunago iristen dira,** baina arrazoi horretatik haratago, elkartzeak **honako onura hauek ekar ditzake:**

**Ikuspena eta ohiartzuna**
iristen garen talde ezberdinen aurrean

**Lotura emozionala**
zue intereseko pertsonekin

**Konpromiso soziala**
eta gizartearen aldeko ekarpen positiboa

**Onura fiskalak**
% 30eko kenkaria sozietateen gaineko zergan (dohaintza gisa)




# Nola lagun dezakezu?

**Hainbat motatako lankidetzetara irekita gaude**, bakoitzaren beharren eta aukeren arabera.

Egiten ditugun jarduerak eta proiektuak askotarikoak direnez, eta dauzkagun espazioak eta aukerak anitzak direnez, lankidetza-aukera batzuk identifikatu ditugu, uste dugulako litekeena dela horietakoren bat interesgarria izatea.

Esparru bakoitzeko lankidetza ekonomikoki gauza daiteke, edo ikastolarentzat balio erantsia duten babeslearen edo laguntzailearen berezko material, ekipo edo medioen bidez ere bai.

Hala ere, nahi baduzu, partekatu zure proposamena eta elkarrekin aurkituko dugu nola lagundu.

| | Balioak eta publikoa | Proiektuak | Publikazioak | Ekitaldiak | Espazioak | Ekipamenduak | Bekak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| KULTURA | **Proiektu kulturalak babestean, zuen erakundeak sormena, aniztasuna eta gizarte-diskurtsoa sustatzen dituela erakusten du, garapenarekin konprometitutako marka-irudia proiektatuz.**<br><br>Halako proiektuek barne hartzen dituzten balioetako batzuk honakoak dira: sormena, identitatea, aniztasuna, enpatia, komunikazioa, eta abar.<br><br>Publiko nagusia Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoko ikasleak eta familiak dira. | • Kulturlab<br>• Ahotsenea<br>• LauHaixetara Irratia | • Memoria<br>• Blog eta sare sozialak<br>• Adinaren araberako publikazioak:HH, LH, DBH, Batxilergoa | • Ikastolako jaia<br>• Expertia- hitzaldiak<br>• Ipuin kontalaria<br>• Familia eskola<br>• Euskaraz bizi | • KulturLab | | |
| STEAM | **STEAM proiektuak babesteak hezkuntza aurreratuarekin, berrikuntzarekin eta etorkizunerako funtsezko gaitasunen garapenarekin konpromisoa erakusten du.**<br><br>Halako proiektuek barne hartzen dituzten balioetako batzuk honakoak dira: sormena, berrikuntza, pentsamendu kritikoa, eta abar.<br><br>Publiko nagusia Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoko ikasleak eta familiak dira. | • Mugitek-GreenPower<br>• Robotics for all<br>• Lazarus | • Memoria<br>• Blog eta sare sozialak<br>• Adinaren araberako publikazioak:HH, LH, DBH, Batxilergoa | • STEAM astea<br>• Leihaketak: First Lego League, Galiciencia, Exporecerca, Zientzia azoka, ... | • MugitekLab<br>• Laborategiak<br>• Robotika gela | • Leihaketa eta ekitaldietarako kamisetas | • Exporecerca ikeketa beka |

| | Balioak eta publikoa | Proiektuak | Publikazioak | Ekitaldiak | Espazioak | Ekipamenduak | Bekak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| NATURA- GARAPEN IRAUNKORRA | **Naturarekin lotutako proiektuak babesteak ingurumenaren zaintzarekin eta mundu jasangarriago baten aldeko ekarpenarekin duen konpromisoa nabarmentzen du.**<br><br>Halako proiektuek barne hartzen dituzten balioetako batzuk honakoak dira: jasangarritasuna, kontzientzia ekologikoa, erantzukizuna, eta abar.<br><br>Publiko nagusia Haur Hezkuntza eta Lehen **Hezkuntzako ikasleak eta familiak dira.** | • Laia Lab | • Memoria<br>• Blog eta sare sozialak<br>• Adinaren araberako publikazioak:HH, LH, DBH, Batxilergoa | • Astelehentxutxu<br>• Zuhaitz eguna<br>• Mendi irteerak | • Laia Lab | | |
| TALENTUA ETA GARAPENA | **Talentua garatzeko proiektuak babesteak marka lotzen du ahalduntze pertsonalarekin, lidergoarekin eta etengabeko hazkundea sustatzearekin.**<br><br>Halako proiektuek barne hartzen dituzten balioetako batzuk honakoak dira: autoezagutza, talentua, bikaintasuna, etorkizuna, garapena, lidergoa, ekintzailetza, eta abar.<br><br>Publiko nagusia DBH eta Batxilergoko ikasleak eta familiak dira. | • Ekintzailetza azoka<br>• World Peace Game<br>• Atzerrian ikasketak<br>• Finantza konpetentzia | • Memoria<br>• Blog eta sare sozialak<br>• Adinaren araberako publikazioak:HH, LH, DBH, Batxilergoa | • Ekintzailetza azoka<br>• Agur jaia<br>• Orientazio azoka<br>• Proiektu pertsonalaren azoka<br>• Ikasle ohien jaia<br>• Leihaketak: European Youth Parliament, Unesmun | | | • Atzerrian ikasteko beka |

| | Balioak eta publikoa | Proiektuak | Publikazioak | Ekitaldiak | Espazioak | Ekipamenduak | Bekak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| KIROLA ETA OSASUNA | **Halako ekimenak babesteak ohitura osasungarriak sustatzeko, talde-lana bultzatzeko eta iraunkortasuna indartzeko konpromisoa erakusten du.**<br><br>Proiektu mota honek barne hartzen dituen balioetako batzuk honakoak dira: kirola, osasuna, ahalegina, gainditzea, talde-lana, eta abar.<br><br>Publiko nagusia Lehen Hezkuntza eta DBHko ikasleak eta familiak dira. | • HH-LH kirol plana | • Memoria<br>• Blog eta sare sozialak<br>• Adinaren araberako publikazioak:HH, LH, DBH, Batxilergoa | • LXT kirol eguna<br>• Leihaketa | • Polikiroldegia<br>• Igerilekua<br>• LXT futbol zelaia<br>• Kalistenia<br>• Pickelball<br>• Softball<br>• Atletismo pista<br>• Gimnasioa<br>• Jantokia | • Kirol ekipazioa | |

En las  siguientes páginas describimos con más detalle cada uno de los ámbitos mencionados en la tabla.

# KULTURA

KULTURA

## PROIEKTUAK

### KulturLab proiektuak

**Helburuak**

Gure eskola-komunitate osoan ikaskuntza, sormena eta kulturaren gozamena sustatzeko diseinatutako espazio dinamiko bat da, Kultur Lab ez da ohiko liburutegia soilik; kultura-laborategi bat da, non ezagutza esploratu, sortu eta partekatu daitekeen. Testuinguru honetan garatzen dira hainbat jarduera, hala nola: ikasleentzako hitzaldiak, familientzako hitzaldiak, ipuin-kontalari saioak, euskal idazle ospetsuekin solasaldiak, ikerketa-proiektuak, eta abar.

**Balioak**

- Literatura
- Hezkuntza berrikuntza
- Kultura
- Jakinmina
- Sormena
- Talde lana
- Topaketa

**Publikoa**

- Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoko ikasleak, baita haien familiak ere.
- 2.000tik gora blogeko harpidedun eta 400-2.264 jarraitzaile arte sare sozial ezberdinetan, non proiektuaren lorpen nagusiak ezagutarazten ditugun.redes sociales a través de las que damos a conocer los diferentes hitos del proyecto.



KULTURA

## Ahotsenea

**Helburuak**

Ekimen honen baitan, Lehen Hezkuntzako ikasleek beren ahotsa, talentuak eta, azken batean, beren pasioak partekatzen dituzte besteen aurrean, sormena eta adierazpen artistikoa askatasunez garatuz.

**Balioak**

- Sormena
- Adierazpen artistikoa
- Topaketa
- Talentua

**Publikoa**

- Lehen Hezkuntzako ikasleak, baita haien familiak ere.
- 2.000tik gora blogeko harpidedun eta 400-2.264 jarraitzaile arte sare sozial ezberdinetan, non proiektuaren lorpen nagusiak ezagutarazten ditugun.redes sociales a través de las que damos a conocer los diferentes hitos del proyecto.



KULTURA

## LauHaixetara Irratia

**Helburuak**

Ikasleei hezkuntza-esperientzia integral bat eskaintzen dien irrati-proiektu bat da, ohiko ikasgelatik harago doana.

**Balioak**

- Komunikazioa
- Talde lana
- Sormena

**Publikoa**

- Lehen Hezkuntza eta DBHko ikasleak, baita haien familiak ere.
- 2.000tik gora blogeko harpidedun eta 400-2.264 jarraitzaile arte sare sozial ezberdinetan, non proiektuaren lorpen nagusiak ezagutarazten ditugun.redes sociales a través de las que damos a conocer los diferentes hitos del proyecto.



## EKITALDIAK

### Ikastolako jaia

Ikasturte amaierako jaia da, eta batez ere Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleak eta familiak biltzen ditu. Egunak honako ekintzak hartzen ditu barne: kirol txapelketak, puzgarriak, kontzertuak, herri-bazkaria, eta abar.

### Expertia

Esperientzia geletara eramaten duten familiak dira, ikasleei beren ikuspegiarekin aberasten dieten hainbat gairi buruzko hitzaldiak emanez.

### Ipuin kontalariak

Haur Hezkuntzako ikasle eta familiak biltzen dituzten aldizkako ekitaldiak.

### Familia eskola

Familientzako hainbat gairi buruzko prestakuntza eta hitzaldiak.

### Euskaraz bizi

Euskararen erabileraren inguruko sentsibilizazio-hitzaldiak, ikasle eta familientzat.

## ESPAZIOAK

### KulturLab

Proiektuaz haratago, KulturLab espazio bat da, gure eskola-komunitate osoan ikaskuntzarekin, sormenarekin, ikerketarekin eta kulturaren gozamenez lotutako jarduera eta ekitaldi ugari hartzen dituena.

# STEAM

## PROIEKTUAK

### Mugitek- Greenpower

**Helburuak**

Batxilergoko ikasleek garatutako proiektua, mugikortasun elektrikoan oinarritua. Bertan, ikasleek auto elektriko bat eraikitzen dute eta Euskadin antolatzen diren lasterketetan lehiatzen dira. Guztira, iparraldeko beste taldeekin batera parte hartzen duten 4 lasterketa ospatzen dira.

**Balioak**

- Talde lana
- Hezkuntza berrikuntza
- STEM bokazioa
- Mugikortasun elektrikoa
- Jasangarritasuna

**Publikoa**

- Proiektuan parte hartzen duen ikasleak.
- Bizkaiko 1.000 familia, proiektuari buruzko informazioa jasotzen dutenak.
- 2.000tik gora blogeko harpidedun eta 400-2.264 jarraitzaile sare sozial ezberdinetan, non proiektuaren lorpen nagusiak ezagutarazten ditugun.
- Lasterketa ezberdinetan parte hartzen duten pertsonak.
- Asteburuetan Lauaxetara mugitzen diren 250 pertsona inguru, eskolaz kanpoko partiden harira, eta proiektuari buruzko informazioa jasotzeko aukera dutenak.



## Robotics for all

**Helburuak**

Robotikaren munduan lehen urratsak emateko jarduera bat, non ikasleak eraikuntza, sorkuntza eta programazio zikloetan murgilduko diren, betiere STEAM (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Arteak eta Matematika) printzipioa jarraituz. Gainera, First Lego League bezalako lehiaketetan parte hartzeko aukera izango dute.

**Balioak**

- Sormena
- Talde lana
- STEM bokazioak

**Publikoa**

- Lehen Hezkuntzako ikasleak, baita haien familiak ere.
- 2.000tik gora blogeko harpidedun eta 400-2.264 jarraitzaile arte sare sozial ezberdinetan, non proiektuaren lorpen nagusiak ezagutarazten ditugun.redes sociales a través de las que damos a conocer los diferentes hitos del proyecto.



## Lazarus

**Helburuak**

Ekimen honen helburua da ikasleek beren gailu digitalak modu egoki eta seguruan erabiltzea bermatzea.

**Balioak**

- Segurtasun digitala
- Erantzunkizuna
- Ongizatea

- Batxilergoko ikasleak, baita haien familiak ere.
- 2.000tik gora blogeko harpidedun eta 400-2.264 jarraitzaile arte sare sozial ezberdinetan, non proiektuaren lorpen nagusiak ezagutarazten ditugun.redes sociales a través de las que damos a conocer los diferentes hitos del proyecto.

**Publikoa**

Batxilergoko ikasleak



## EKITALDIAK

### STEAM astea

Aste batez, tailerrak, erakusketak, ikasleen eta profesionalen hitzaldiak, erronkak, STEM azoka eta beste hainbat jarduera garatzen dira, eta guztiek elementu komun bat dute: zientzia, teknologia, ingeniaritza eta matematikarako interesa.

### Leihaketa eta zientzia azokak

Gure ikasleek hainbat azoka eta lehiaketa zientifikotan parte hartzeko aukera dute, hala nola First Lego League, Galiciencia, Exporecerca eta Elhuyar Zientzia Azoka, besteak beste. Bertan, ikastolan ikasitakoa praktikan jartzen dute. Ekitaldi hauek aukera ematen diete beren gaitasuna, sormena eta talentua erakusteko, bai besteei, bai beren buruari. Horrez gain, erronka berritzaileen eta esperientzia aberasgarrien bidez, garapen akademiko eta pertsonala sustatzen dute.

## ESPAZIOAK

### MugitekLab

MugitekLab proiektuak bi laborategi teknologiko biltzen ditu, non teknologia, jasangarritasuna eta diziplinarteko ikaskuntza uztartzen diren. 6. mailatik Batxilergoko 2. mailara bitarteko ikasleentzat diseinatuta daude, eta sektore estrategikoetan –hala nola automobilgintza, ingeniaritza eta ekonomia berdea– funtsezko gaitasunak garatzeko prestatuta daude.

### Laborategi zientifikoak

DBH eta Batxilergoan zientzia laborategiak dituzte haien proiektu eta ikerketak garatzeko.

### Robotika aula

Lehen Hezkuntzan robotika saioetarako gela bat dute.

## EKIPAZIOA

### Ekitaldi eta leihaketetarako ekipazioa

Ekitaldi eta lehiaketa jakin batzuetan parte hartzeko, kamisetak, horma-irudiak, roll-upak eta hainbat material erabiltzen dira, eta horietan ere babesaren bidez parte hartzeko aukera dago.

## BEKAK

### Exporecerca beka

Exporecerca zientzia-azokan parte hartu nahi duten ikasleei babesa emateko aukera dago.



# NATURA ETA GARAPEN IRAUNKORRA

NATURA ETA GARAPEN IRAUNKORRA

## PROIEKTUAK

### LaiaLab

**Helburuak**

Naturarekin harremanetan ikasteko proiektu bat da, ikasleei ingurune naturalarekiko errespetuaren eta bizikidetzaren garrantzia nabarmenduz. Nazio Batuen 2030 Agenda eta Garapen Jasangarriko Helburuak dira gune honetan garatzen diren hezkuntza-jarduera gehienak egituratzen dituzten bi ardatzak. Ikasteko gune ezberdinak ditu: eskola baratzea, Luma Alai, Aintzira eta basoa.

**Balioak**

- Jasangarritasuna
- Kontzientzia ekologikoa
- Erantzunkizuna

**Publikoa**

- Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleak, baita haien familiak ere.
- 2.000tik gora blogeko harpidedun eta 400-2.264 jarraitzaile arte sare sozial ezberdinetan, non proiektuaren lorpen nagusiak ezagutarazten ditugun.redes sociales a través de las que damos a conocer los diferentes hitos del proyecto.



## EKITALDIAK

### Astelehentxutxu eta Urriko azoka

Lehen Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako ikasle eta familiekin egiten den topaketa bat da, seme-alabek lantzen duten baratzea eta ondoren Urriko Azokan saltzen diren barazkiak bertatik bertara ezagutzeko helburuz.

### Zuhaitz eguna

Lehen Hezkuntzako ikasleak eta familiak biltzen dituen ekitaldia da, LaiaLab eta bere inguru guztia hurbilduz familiei.

### Familia mendi irteerak

Urtero mendira hainbat irteera antolatzen ditugu ikasle eta familiekin, elkar ezagutzeko, uneak partekatzeko eta naturarekiko eta kirolarekiko sentiberatasuna sustatzeko. Lehen Hezkuntzako ikasleak eta familiak biltzen ditu batez ere.

## ESPAZIOAK

### LaiaLab

Proiektu bat izateaz gain, LaiaLabek espazio gisa, honako hauek barne hartzen ditu:

- Eskola-baratze ekologikoa
- Luma alai: oilategi ekologikoa
- Aintzira: arrain eta ahateen urmaela
- Baserri eskola: animalien gunea
- Baso botanikoa

# TALENTUA ETA GARAPENA

# PROIEKTUAK

## Ekintzailetza astea

**Helburuak**

Batxilergoko 1. mailako ikasleen proiektua da, ekintzailetza eta berrikuntza ardatz dituena. Ikasleek beren ingurunean hautematen duten benetako behar bat identifikatzen dute, eta horri erantzuteko enpresa bat sortzeaz arduratzen dira. Astea amaitzeko, beren enpresa aurkeztu eta defendatuko dute epaimahai baten aurrean, ekintzailetza-azokan.

**Balioak**

- Talde lana
- Hezkuntza berrikuntza
- Ekintzailetza

**Publikoa**

- Proiektuan parte hartzen duten 120 ikasle inguru.
- 8-10 sektore profesionaletako epaimahaiko profesionalak.
- Talde bakoitzaren mentoretza lanetan diharduten 30 pertsona.
- Bizkaiko 1.000 familia, proiektuari buruzko informazioa jasotzen dutenak. 2.000tik gora blogeko harpidedun eta 400-2.264 jarraitzaile sare sozial ezberdinetan, non proiektuaren lorpen nagusiak ezagutarazten ditugun.
- 300-400 pertsona inguruk parte hartzen dute ekintzailetza azokan.



## World Peace Game

**Helburuak**

DBHko 3. mailako ikasleen proiektua da. Rol-joko baten bidez, hainbat herrialdetako hainbat kargu ordezkatzen dituzte, eta horiei dagokie sortzen diren gatazkak modu baketsuan konpontzea, bakoitzaren interesak eta ikuspuntuak kontuan hartuta.

**Balioak**

- Talde lana
- Hezkuntza berrikuntza
- Garapen Iraunkorreko Helburuak
- Nazio Batuak
- Negoziazioa eta arazoen ebazpen baketsua

**Publikoa**

- Proiektuan parte hartzen duten 120 ikasle inguru.
- Bizkaiko 1.000 familia, proiektuari buruzko informazioa jasotzen dutenak.
- 2.000tik gora blogeko harpidedun eta 400-2.264 jarraitzaile sare sozial ezberdinetan, non proiektuaren lorpen nagusiak ezagutarazten ditugun.



## Atzerrian ikastea

**Helburuak**

Atzerrian ikasketa-egonaldi luzea egin nahi duen ikasleak bizi-esperientzia esanguratsua izaten du. Lauaxetatik hainbat ikasketa aukera kudeatzen ditugu EAS Vele, STEP eta Aston Herentziaren eskutik. Oro har, egonaldi luze horiek hiruhileko batekoak edo ikasturte osokoak izaten dira, eta Europako edo Europatik kanpoko herrialdeetan egin daitezke.

**Balioak**

- Hizkuntzak
- Autonomia
- Garapen pertsonala
- Aniztasuna eta enpatia

**Publikoa**

- DBH eta Batxilergoko ikasleak.
- 2.000tik gora blogeko harpidedun eta 400-2.264 jarraitzaile sare sozial ezberdinetan, non proiektuaren lorpen nagusiak ezagutarazten ditugun.



## Finantza konpetentzia

**Helburuak**

14 urtetik 18 urtera bitarteko ikasle guztiek dute finantza-arloko prestakuntza jasotzeko aukera, beren finantzei eragiten dieten erabakiak hartzeko gaitasuna eta autonomia garatzeko helburuz: dirua kudeatzen ikastea, aurrezkia, gastua, inbertsioa, inflazioa eta antzeko kontzeptuak ulertzea.

**Balioak**

- Autonomia
- Garapen pertsonala
- Erantzunkizuna
- Etorkizuna

**Publikoa**

- DBH eta Batxilergoko ikasleak.
- 2.000tik gora blogeko harpidedun eta 400-2.264 jarraitzaile sare sozial ezberdinetan, non proiektuaren lorpen nagusiak ezagutarazten ditugun.



# EKITALDIAK

## Ekintzailetza azoka

Hainbat sektoretako profesionalen ekintzailetza-esperientziak lehen eskutik entzun ondoren eta bakoitzak bere enpresan lan egin ondoren, egiaren ordua iritsi da. Batxilergoko 1. mailako ikasleek, beren standetik, beren enpresa aurkezten dute Lauaxetako ekintzailetza-azokan, epaimahai baten aurrean.

## Agur jaia

Batxilergoko 2. mailako graduazio-festa da, ikasleak eta familiak biltzen dituena. Oso egun hunkigarria izaten da, guztien ahalegina eta lortutakoa gogoratuz.

## Orientazio azoka

Informazioa eta laguntza emateko helburuz, orientazio-azoka bat egiten dugu urtero, eta, bertan, Batxilergoko azken mailako ikasleek eta haien familiek unibertsitate desberdinetara hurbiltzeko eta unibertsitate bakoitzak eskaintzen dituen ikasketak ezagutzeko aukera izaten dute. Hori guztia Lauaxeta Ikastolan antolatutako egun berean.

## Proiektu pertsonalaren azoka

Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 4. mailako ikasleek ikasturte osoan egin dituzten ikaskuntza-proiektuak aurkezteko jardunaldia da. Festa bat, eta bere zaletasunei lotutako proiektuen erakusketa bat.

## Ikasle ohien jaia

Lauaxetann ikasketa ibilbidea bukatu eta gero, ikasle ohiekin lotura zaindu nahi dugu. Helburu horrekin egiten ditugun jardueren artean, ikasle ohien jaia dago.

## Leihaketak eta esperientziak

Batxilergoko ikasleek hainbat lehiaketa eta esperientziatan parte hartzen dute, beren gaitasun guztiak balioan jarriz. European Youth Parliament edo Unesmun bezalako ekimenak horren adibide dira.

Bi esperientzia horietan, DBHko 4. mailan eta Batxilergoko 1. mailan, beste ikastetxe batzuetako ikasleekin batera, politika, ekonomia, gizarte edo ingurumen arloetako gaiei buruz eztabaidatzen da, Europako Parlamentuaren eta Nazio Batuen eredua simulatuz.

# BEKAK

## Atzerrian ikasteko beka

Atzerriko egonaldi luzeetan laguntzeko aukera dago. Hiruhileko batekoak edo ikastaro oso batekoak izaten dira, eta Europako edo Europatik kanpoko herrialdeetan egin daitezke.



# KIROLA ETA OSASUNA

## HH-LH kirol plana

**Helburuak**

Lauaxetan, ikasleen ongizate fisiko eta emozionalari txiki-txikitatik erantzuteak duen garrantzia sakonki baloratzen dugu, hezkuntza integrala eta orekatua sustatuz. Horregatik, honako hauek barne hartzen dituen programa diseinatu dugu: Garapen fisikora zuzendutako jarduerak (haur hezkuntzatik eguneroko jarduera fisikoarekin, 4 urtetik aurrerako heziketa fisikoko eskolekin, eta psikomotrizitatearekin Aucoutorier metodoarekin 2 urtetik aurrera eta kirol anitzekin 5 urtetik aurrera) eta ongizate emozionalerako jarduerak: yoga saioak, meditazioa eta erlaxazioa haur hezkuntzatik.

**Balioak**

- Garapen fisiko eta edmozionala
- Ahalegina
- Osasuna
- Ongizatea

**Publikoa**

- Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleak.
- 2.000tik gora blogeko harpidedun eta 400-2.264 jarraitzaile sare sozial ezberdinetan, non proiektuaren lorpen nagusiak ezagutarazten ditugun.



## ESPAZIOAK

Babesle gisa egoteko aukera dago honako espazio hauetan, bai horietan publizitate-moduluak txertatuz, bai dagokion espazioari izena jarriz:

- Polikiroldegia
- Igerilekua
- LXT futbol zelaia
- Kalistenia
- Pickelball
- Softball
- Atletismo pista
- Gimnasioa
- Jantokia

## EKITALDIAK

### LXT Kirol eguna

Kirol festa bat da, urte amaieran ospatzen dena, Ikastolan bertan. Jardunaldi honetan, ikastolako talde guztiek denboraldiaren amaiera ospatzen dute, partidu eta joko jarduerekin. Jardunaldiari amaiera emateko piknik herrikoia egiten da.

### Leihaketak

Lauaxetako taldeak leihatzen diran txapelketetan parte hartzeko aukera dago.

# EKIPAZIOA

Babesle gisa ondoko ekipazioak ere badituzu aukeran:

**Futbola:**
- Lehen ekipazioa
- Entrenamenduko ekipazioa

**Saskibaloia:**
- Lehen ekipazioa
- Entrenamenduko ekipazioa

**Igeriketa:** Igeriketa ekipazioa

**Taldeko motxila**

**Taldeko txandala**



# Partekatu zure iritzia

Aurreko proposamenetako bat zure interesekoa bada edo beste proposamenen bat baduzu, parkekatu iezaguzu.

**Elkarrekin aurkituko dugu bidea.**

patrozinioa@lauaxeta.eus

688801202

Iurdana/ Imanol



LAUAXETA
IKASTOLA

lauaxeta.eus